

# JO-TA-KE EREDUA

**O**RAIN dela urtebete inguru argitaratu nuen sail honetan ARGIAko lagunei gutun ireki bat. Bertan euskal kulturaren eta euskararen aldeko militantzia goraiatu nahi izan nuen. Gerora gai berbera aipatzeko aukera izan dut. Hori eztabaidatu beharraz jabetua eta sakondu beharrez kezkatuta, ba nenbilen artikulu honetarako titulu egoki baten bila. Eta... hora: Lizarrako ikastolak ateratako koadernoaren eskuetara iritsi.

Nafarroa oinez. Denok bat euskara du titulua; eta bertan Lizarrako ikastolaren historia laburra eman ondoren, euskarari buruz bertan eraman duten politika eta plangintza azaltzen dute; honako goiburuekin amaituz: «Ezina ekinez egina». Ikastolaren helburua «euskaraz bizitzea» dela aitortu ondoren, honela dio txostenak: «Gure helburuak, "D" eredu (dena euskaraz), guk "J" (Jo Ta Ke) deitzen dugun ereduarekin elkarturik doanean, orduan bakarrik lor ditzakegu».

**A**ZKEN urteotan eztabaida luzea dabil eskoletako hizkuntzako ereduak direla eta. Horretaz zerbait kezkatu den edonork daki iru eredu ezberdin dabiltzala Euskal Komunitate Autonomoko eskoletan: «A» eredu (gaiak erdaraz, eta hainbat ordu euskaraz ikasteko), «B» eredu (gai batzuk euskaraz eta beste batzu erdaraz) eta «D» eredu (gaiak euskaraz, eta hainbat ordu erdaraz ikasteko). Lizarrako ikastolakoek «D» ereduarekin batera «J» eredu aukeratu dute. Agian beste eskoletan eta ikastoletan ereduaren inguruan dabilen eztabaida argitzeko gakoa hortxe dago, hain zuzen: «J» (JoTaKE) eredu.

ABD ereduaren izendapena erabat aseptikoa da. Administrazioak eta burokraziak maite izaten dituzte horrelakoak. Berez ez dute ezer aadierazten eta ez dute inolako konotaziorik: izendapen erabat artifizialak dira. Lagun bat zenbakiren batekin ezagutzen den bezala edo liburu bat koderen batekin bereizten den bezala, eskolako hizkuntz eredu le-

**Paulo**  
**AGIRREBALTZATEGI**  
(Euskal Kulturako langilea)

tra soilarekin izendatzen dute. Bereizkuntza eta letrajoko horretan oso trebatua ez baldin bazaude, erraz gal zaitezke, zein den «A» eredu eta zein den «D» eredu jakin ezinik. Badirudi, «A» letra alfabetoaren aurrea izanik, euskaltzalearentzako eudurik bikainena adierazi beharko lukeela; ba ez! «D» eredu da, euskararen erabilerari begira, altuena. Eta «A» ereduaren gelditzen da behean euskararen lekua. Baina letra hutsak direnez, ikasi egin behar bakoitzak zer adierazten duen. Eta, hala ere, hurrengoan berriro nahasteko arriskua daukazu seguruenik.

«J», berriz, izen jakin baten, Jotake ereduaren, laburdura, izen laburtua besterik ez da; eta horrexegatik oso errazki ezagutzekoa eta bereiztekoa. Euskara eskolan erabiltzeko eta gizartearen sartzeko metodo bizia eta militantea adierazten du; metodoa bezain bizia da horren izena ere: Jotake (J). Ereduaren mamia bera argitzen du, eta ez etiketa huts eta hotz soila erakusten.

**L**IZARRAKO ikastolakoek beraien ematen digute «J» ereduaren nolabaiteko definizioa: «Ez da nahikoa euskaraz irakastea, ilusioz eta gure ikasleen euskal ohituren inplantaketan parte hartzen duten aldagai ezberdinak ongi erabiliz, irakatsi behar dugu». Horretan azalpena egitera dator funtsean aipatzen eta aipatzen ari garen txostena. Lizarrako ikastolak argitaraturikoa. Horren bidez lortu dute Li-

zarran, erabat erdaldunduriko herrian, ikastolako haurrek jolasetan eta kalean euskaraz egitea, nahiz eta horien guraso gehiengehienek ere euskaraz ez jakin.

Zertan datza eredu? Funtsean eskola bera gizartera eramatean (haurren eskolako lana kalean, jolasetan, oportretan eta bestelako kultur lanetan jarraituz eta luzatuz), eta, bestalde, gizartea bera eskolaren lanean inplikatzeko (bereizki gurasoak eta herriko kultur talde eta erakundeak). Azken batean, irakasteak, ikasleak, gurasoak eta gizarteko hainbat sektore euskararen aldeko militante bihurtzeko eta militante gisa jotzeko datza Jotake ereduaren balioa.

**M**ETODO akademikoari (akademizistari?) metodo soziala kontrajartzen dio «J» ereduak; edo agian lotu egiten dio, ez bait dago eskolaren izaera akademikoa ukatzerik ere. Baina tresna, baliabide, trebetasun eta pedagogia akademikoekin batera, zinezko militantziarik eta euskararen berreskurapenerako benetako mugimendu herritarrik eta ingurune sozialik sortzen eta lantzen ez badira, oso motz gelditutko dira, eta sarritan ezinaren aurrean, A, B eta D eredu guztiak. Horregatik uste dut, hiru eredu akademiko horien edo bestelako azpian, Jotake (J) eredu beharbeharrezkoa dela, eskolaren eta irakaskuntzaren bidez euskara gure Herrian berreskuratuz eta zabalduz joan gaitezke: ez zona edo herri erdaldunduetan bakarrik, eta bai Orenan eta Azkoitian ere.

Kultur eta hizkuntz militantziaz idazteko asmoa nuen, eta Lizarrako Ikastolarekin topo egin dut: beraren Jotake ereduarekin. Horretan iruzkintxo gertatu dira azkenean lerro hauek: iruzkin xaxtarra, ikastolak berak bizi duen esperientziaren eta argitaratu duen koadernoaren aurrean.

Hurrengoan helduko diogu berriro kultur eta hizkuntza militantziaren gaia. Garrantzi berebizikoa du gure Herrian.